

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2012	R1/2014	2014/10/13	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Kuotak itzultzea. Konkurtso Administrazioa alderdi interesdun gisa pertsonatzea. Ukatzea

Ebazpena: R1/2014

Espedientea: 3/2012

Vitoria/Gasteiz, 2014ko urriaren 13a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

1. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEA jaunak, 2. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEA jaunak eta 3. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEA jaunak Arbitraje Batzorde honetan 3/2012 (1. SOZIETATEA) espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkaren inguruan egin duten eskaerari buruzkoa. Arbitraje Batzorde honek izapidetzeko onartu zuen gatazka 2014ko uztailaren 21ean

I. AURREKARIAK

2014ko maiatzaren 29an Arbitraje Batzordeko erregistroan 2012ko otsailaren 22ko idazki bat sartu zen (aurrerantzean "idazkia"), 1. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEA jaunak, 2. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEA jaunak eta 3. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEA jaunak sinatua, 1. SOZIETATEaren konkurtso-administratzaile gisa (IFK: ---1), prozedura hori Donostiako 1. zk. Merkataritza Epaitegian izapidetzen ari delarik. Izaera hori frogatu dute izendapenaren autoa BOEn argitaratu izanarekin, haren kopia gaineratuz, baita Epaitegi horretako idazkaritzak emandako kredentzialekin. Dokumentu horietatik ondoriozta daiteke 1. KONKURTSO

Espedientea	Ebazpena		Eraginpean hartutako administrazioak		Kontzeptua
3/2012	R1/2014	2014/10/13	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Kuotak itzultzea. Konkurtso Administrazioa alderdi interesdun gisa pertsonatzea. Ukatzea

ADMINISTRATZAILEA 1. ENPRESA ADMINISTRATZAILEA
 administratzailearen ordezkaria dela, eta 2. KONKURTSO
 ADMINISTRATZAILEA 2. ENPRESA ADMINISTRATZAILEA
 administratzailearen ordezkaria dela, eta 3. KONKURTSO
 ADMINISTRATZAILEAK bere kabuz diharduela.

Idazkiak adierazten du Konkurtso Administrazioak jakin duela Arbitraje Batzordea 1. SOZIETATEaren (IFK: ---1) espediente bat izapidetzen ari dela 2. SOZIETATEaren (IFK ---2) ordeko gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen ez dituen BEZaren kuota batzuk itzultzeko eskumena nork duen erabakitzeko xedez. Idazkiak zera gaineratzen zu: "itzulketa-zenbateko handia (masa aktiboa) duen espediente bat denez gero, ordezkatzeko dugun Konkurtso Administrazioak interes handia du espediente horren izapidetzearen jarraipena egiteko, besteak beste bere izapidetze-egoeraren berri emateko aldizka Merkataritza-arloko Epaitegiari, eta horretarako beharrekotzat jotzen du ALDERDI INTERESDUN gisa bertaratzea izapidetzen ari diren prozeduran, gai horri buruz egiten diren jardunen jarraipena egiteko eta, hala badagokio, alegazioak formulatzeko eta bertan sor daitezkeen gai guztiak aurrera eramateko. (jatorrizkoan azpimarratua)

Azaldutakoa kontuan izanik, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio "Konkurtso Administrazio hau 1. SOZIETATEA merkataritza-sozietatearen espedientean bertaratutzat har dezala".

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Itunaren 66. artikulua honako hau xedatzen du:

"Bat. Arbitraje Batzordeek eginkizun hauek izango ditu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2012	R1/2014	2014/10/13	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Kuotak itzultzea. Konkurtso Administrazioa alderdi interesdun gisa pertsonatzea. Ukatzea

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo haien eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai zerga itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Bi. Eskumenak direla-eta gatazkaren bat sortzen denean, eraginpeko administrazioek interesdunei jakinaraziko diete; horrenbestez, preskripzio-epaia eten egingo da eta hortik aurrera administrazio horiek ez dute inongo jardunik egingo.

Gatazkak ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan, interesdunei entzun egingo zaie".

Agindu horretatik ondorioztatzen da Arbitraje Batzordearen aurrean planteatzen diren gatazken parte direla bertan aurrez aurre dauden administrazioak bakarrik; hirugarren pertsonak, gatazkak eraginpean hartutako zergadunetatik hasita, prozedurako interesdun soilak dira.

Aurreko baiespenarekin bat etorritik, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretu bidez onartu zen Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak interesdunak aipatzen ditu, gatazkaren planteamendua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2012	R1/2014	2014/10/13	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Kuotak itzultzea. Konkurtso Administrazioa alderdi interesdun gisa pertonatzea. Ukatzea

jakinarazteko (15.1 art.), espedientearen berri emateko alegazioak jar ditzaten (16.4 art.) eta ebazpenaren berri emateko (18. art.). Arestian aipatutakoez gain, zergapekoak gatazka "automatikoa" planteatzen dezake, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.3 artikuluari jarraiki.

Argi dago, beraz, zergapekoak eta gatazkaren barnean dauden administrazioez bestelako edozein pertsonak ezin duela gatazkan parte izan Arbitraje Batzordearen aurrean. Zergapekoa interesduna da berez gatazka horretan. Ondorioz, idazkia sinatu dutenen eskaria, konkurtso-administrazioa "alderdi interesdun" gisa pertsonatutzat hartzeko, ezin da onartu interpretatzen bada haiek nahi dutena administrazioa prozeduraren parte gisa hartzea dela.

2. Aurreko ondorioak ez du bazter uzten konkurtso-administrazioa prozeduran interesdun gisa pertsonatu dadin onartzeko aukera, hau da, sozietate zergadunak, orain konkurtsatuta dagoenak, inolako zalantzarik gabe duenaz bereiz daitekeen interes legitimo baten jabe gisa.

Gai horri erantzuteko konkurtso-administratzaileen posizioa aztertu behar da, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legetik (KL) ondorioztatzen den posizioa, alegia. Lehenik, adierazi behar da Konkurtso legearen 184.1 artikuluan xedatzen dena, zeinak dioenez "sekzio guztietan alderdi gisa onartuko dira, forma bertaratzeko beharrik gabe, zorduna eta konkurtso-administratzaileak", argi dago ez dela aplikatzekoa konkurtso-prozeduratik kanpo.

Konkurtso-administratzaileen ahalmenak zordunak dituen eta Konkurtso legearen 40. artikuluan erregulatzen diren ondare-ahalmenekin zuzenean erlazionatuta daude. Idazkiari gaineratzen zaizkion kredentzial judizialek adierazten dute konkurtso horretan ahalmen horiek esku-hartzekoak direla. Kasu horretan, "zordunak bere ondarearen gainean administratu eta erabiltzeko ahalmenak izango ditu, horien egikaritzea konkurtso-administratzaileen esku-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2012	R1/2014	2014/10/13	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Kuotak itzultzea. Konkurtso Administrazioa alderdi interesdun gisa pertsonatzea. Ukatzea

hartzearen mende geratuz, haien baimena edo adostasuna direla medio" (Konkurtso Legearen 40.1 artikulua). Horixe adierazten dute esanbidez aipatu kredentzialek. Konkurtso Legeak, beraz, konkurtsatutako zordunaren jarduteko ahalmenari muga bakarra ezartzen dio, konkurtso-administrazioaren kontrol-jardunarekin integratu behar dena. Konkurtso-administratzaileek, beraz, ez dute zordun konkurtsatuarenaz bestelako interesik, baina behin konkurtsoa deklaritzen denean interes hori hartzekodunen interesarekin harmonizatu behar da, horixe baita konkurtso-administrazioaren jardunak lortu nahi duen helburua.

Bestalde, administratzaileen ahalmenek aukera emango diete, zalantzarik gabe, gatazkaren prozeduraren nondik norakoa jarraitzeko eta bertan esku hartzeko, zeharka bada ere, zergadun konkurtsatuak prozedura horretan egiten dituen jardunak baimenduz edo horiei adostasuna emanez, gatazkan bere kabuz pertsonatu behar gabe.

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEAK, 2. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEAK ETA 3. KONKURTSO ADMINISTRATZAILEAK 2014ko maiatzaren 29ko idazkian egindako eskaera ukatzea.